

## **BALIO PROPOSAMENA**

Egun denok erabiltzen dugu mugikorra (edo beste edozein apartu elektrikoren bat gure eguneroko bizitzan). Elektrizitatea erabiltzen duten gailu hauek daukaten arazo larrienetako bat bateria nahi baino lehen agortu egiten zaiela da. Gure produktuak arazo honi aurre egiten dio modu eraginkorrean.

Geroz eta gehiago erabiltzen den bizikletaren bidez gure mugikorra kargatzeko aukera ematen diogu bezeroari. Bizikleta, garai bateko asmakizuna, inoiz baino etorkizun haundiagoa du XXI. Mendean. Etorkizunean bide gorrien ugalketa dela eta aurrikusten da geroz eta jende gehiagok erabiliko duela txirrindua lanera joateko, aisialdirako, erosketak egiteko, etab.

Gainera, gure gailuak jendearengan garrantzia irabazten ari den ingurugiroarekiko errespetua bermatzen du.

Kirola, praktikotasuna, ekonomia, ingurugiroaren errespetua, erosotasuna... denak batzen ditu TXAIKOLNAMOK.